

« LETTRE OUVERTE AUX ELUES ET ELUS DE LA COMMUNAUTE D'AGGLOMERATION DU PAYS BASQUE »
- Transfert et danger d'expulsion encouru par les 'dublinés' de Bayonne -

Mesdames les Conseillères, Messieurs les Conseillers Communautaires du Pays Basque,

Dublin III, vous connaissez ?

C'est un dispositif administratif et policier mis en place par l'Union Européenne pour réceptionner et trier les demandeurs d'asile. Dans notre pays, la priorité est clairement établie : en expulser le plus possible. Parmi les publics cibles figurent les « dubliné.e.s », c'est-à-dire les migrantes et migrants ayant débarqué, dans les conditions épouvantables que l'on connaît, sur les côtes le plus souvent italiennes. Et dont on a pris les empreintes dans le fichier Eurodac.

Qu'ils ou qu'elles aient ou non déposé une demande d'asile en bonne et due forme, peu importe.

En application d'une procédure rigide et selon un calendrier contraint, tout est mis en œuvre pour les renvoyer vers ce pays d'arrivée en Europe. Et que l'Italie, en l'occurrence, ait officiellement et clairement annoncé son incapacité à les accueillir dans des conditions dignes et réglementaires, que ces carences du système italien d'asile aient été reconnues, notamment par le Tribunal Administratif de Bordeaux ou l'O.N.U., que le risque d'un renvoi vers la Lybie ou le pays d'origine soit réel, les autorités françaises n'en ont cure ! Les « dublinés » sont alors assignés à résidence, ou même placés en centre de rétention, avant leur transfert forcé.

Un CAO ouvert à Bayonne !

Le CAO de Bayonne a accueilli mi-septembre 25 demandeurs d'asile ; **21 d'entre eux ont été déclarés « dublinés »**. **Le 19 décembre, ils vont être enjoins de prendre la route de Pau pour être entassés dans un « PRAHDA » de 140 places installé dans un ancien hôtel Formule 1. Leurs conditions matérielles et humaines sont inacceptables en l'état, comme à ce jour la présence seulement de trois salariées et pas d'interprètes.**

Ce sera la fin brutale, douloureuse, du lien social chaleureux tissé au fil des semaines avec les dizaines de professionnels et bénévoles mobilisés dans ce centre, la fin des mesures d'accompagnement auxquelles ils ont adhéré avec enthousiasme (apprentissage du français, suivi médical, aide administrative, découverte de la vie culturelle et sportive locale,...). Des initiatives de toute nature sont prises, des démarches effectuées et par défaut d'amélioration des recours pourront éventuellement être envisagés auprès du Tribunal Administratif pour dénoncer cette situation intolérable. Tout espoir n'est pas perdu ! Prenez le relais...

En quoi la Communauté d'Agglomération Pays Basque est-elle concernée ?

Bien sûr la gestion des demandes d'asile ne relève pas de ses compétences statutaires. Et nous savons que des milliers de nos concitoyens connaissent la précarité et même la pauvreté. Est-ce une raison suffisante pour que la Collectivité, ses élus et élues se désintéressent du problème. Bien sûr que non !

Nous invitons chacun, chacune d'entre vous et les institutions dans lesquelles vous siégez à prendre sa part dans cette démarche humanitaire, à la fois de remise en cause de la politique nationale en œuvre et en voie d'être encore durcie, mais aussi d'optimisation des conditions d'accueil de ces migrants.

Savez-vous que sur 800 places d'accueil de migrants, demandeurs d'asile ou réfugiés, recensées en Pyrénées Atlantiques et financées par l'État, 85% sont en Béarn. Cela correspond aux structures officielles (CADA, CAO, PRAHDA) non compris les accueils personnalisés dans les villes et villages.

Dans une phase plus avancée des procédures et pour les réfugié.e.s autorisé.e.s à résider se posent les questions cruciales d'accès aux droits, à un logement, à une formation, à un travail. Il ne s'agit pas de concevoir des dispositifs spécifiques qui privilégieraient les réfugié.e.s par rapport à nos concitoyen.ne.s dans le besoin.

Il s'agit, en prenant en compte les difficultés inhérentes à leur origine et leur histoire, de leur offrir une réelle chance de découvrir notre pays et d'y trouver leur place à nos côtés. L'immigration n'est pas une fatalité, c'est une chance pour tous !

Ce qui est en jeu, c'est le respect des droits humains et des droits d'asile, une posture digne du Pays Basque, terre d'accueil, d'émigration et d'immigration.

De nombreuses collectivités, des centaines de bénévoles, de professionnel.le.s se sont mobilisés en matière d'hébergement et d'accompagnement. Beaucoup reste à faire.

Nous comptons sur vous.

Les 30 associations, les 320 membres du Collectif Solidarité Migrants. Etorkein, du Cercle de Silence et des Bénévoles du CAO.

Signataires : ASPAL Pays Basque Sud Landes, ATTAC Pays Basque, CCFD-Terre Solidaire Pays Basque, CDDHPB (Comité de défense des droits de l'Homme en Pays basque), CDEP Bayonne, CFDT Pays Basque, CGT Territoriaux Biarritz, CIMADE Groupe Bayonne, CSF, EELV Pays Basque, EH BAI, Ensemble ! Pays Basque, Parti Socialiste, FCPE64, Fraternité Charles de Foucauld-Bayonne, FSU64, Groupes de Recherche Théologique, La LICRA, LAB, LCR Pays Basque, LDH Bayonne, l'Église Protestante Unie de Bayonne Biarritz, Les Bascos, PCF, Planning familial de Bayonne, Secours Catholique Pays de l'Adour, Solidaris, SOS Racisme, Union Syndicale Solidaire.

Mail : solidaritemigrantspb@gmail.com

Lekualdaketa eta kanporaketa arriskua Baionako etorkin "dublinatu"entzat

Euskal Elkargoko kontseilari Jaun-andereak,

Dublin III, ezagutzen duzue ?

Babes eskatzaileak errezibitzeko eta sailkatzeko baliabide administratibo eta poliziala da, Europako Erakundeak ezarria. Estatu honetan, lehenasuna argiki finkatua da : migrante ahal bezain bat kanporatu. Jomugan diren jendeetan « dublinatuak » aurkitzen dira, hots mediterraniar kostaldeetan - gehienetan Italiakoetan - lehorreratu diren etorkinak dira, dakizkigun baldintza ikaragarrietan. Beraien hatz markak Eurodac fitxategian atxikiak dira.

Beraiek babes eskaera bat behar den bezala egin izatea ala ez, berdin da.

Prozedura zurrun bat aplikatuz eta egutegi behartu baten arabera, dena egina da migrante horiek iritsi ziren Europako herrira gibelera bidaltzeko. Eta Italiak (kasu honetan) ofizialki eta argiki iragartzea baldintza duinetan eta arauen arabera ezin dituela errezibitu, italiar sistemaren eskasia horiek, Bordaleko Auzitegi administratiboak baita Nazio Batuen Erakundeak bezalako erakundeek aitortua izatea, Libiaruntz edo beraien jatorrizko herrira gibelera igorriak izan daitezzen benetako arriskua izatea, frantses agintariei berdin zaie ! « Dublinatuak » egoitz asigatuak dira edo, okerrago, atxikitze zentro batean ezarriak, bortxaz eramanak izan aitzin.

CAO bat Baionan !

Baionako CAO (harrera eta orientazio zentroa)-k 25 babes eskatzaile errezibitu ditu irailaren erditsutan. **21 « dublinatu »-tzat deklaratuak izan dira. Abenduaren 19an, beharko dute Pauera joan; han, ohiko "Formule 1" batean ideki 140 tokiko « PRADHA » batean metatuak izanen dira. Den bezala, toki hartako bizi baldintzak eta baldintza materialak onartezinak dira ; gisa berean, gaur egun, itzultzaileak ez izatea eta bakarrik hiru langile.**

Lekutze bortxatu horrek, Baionako zentroan, asteetan zehar, hamarnaka langile eta boluntarioekin sortutako lokarrien bukaera mingarria ekarriko du ; baita gogotik berenganatu zituzten laguntza neuri guztiena (frantses kurtsoak, medikuntza segimendua, laguntza administratiboa, tokiko kultura eta kirol-biziaren ezagutza...). Egoera jasangaitza hau salatzeko, mota guztietako inizatibak hartuak dira, desmartzak eginak eta, hobekuntzarik ez bada helegiteak aurre ikusiak dira. Esperantza ez da galdu behar ! Lekukoa har ezazue...

Zer dagokio Euskal Elkargoari ?

Jakin badakigu babes eskaeren kudeaketa ez dela Euskal Elkargoaren eskumenetan sartzen. Badakigu ere milaka herritarrek prekaritatea eta pobrezia jasaten dutela. Horrek erran nahi ote du Elkargoak eta Elkargoko hautetsiek ez dutela arazoaz axolatu behar ? Noski ezetz !

Gomititzen zaituztegu, zuek eta parte hartzen duzuen erakundeak, desmartz humanitario horretan parte izatera, alde batetik frantses estatuak bideratu politika, gogortzeko bidean dena oraindik, zalantzan ematen duen desmartz eta bestalde migranteen harrera eta geriza baldintzak hobetzeko asmoz.

Ba al dakizue estatuak, migrante, babes eskatzaile edo errefuxiatuentzat, Pirinio atlantikoetan finantzatutako 800 geriza tokietarik % 85a Biarnoan direla ? Toki hauek izanik egitura ofizialetakoak (CADA, CAO, PRAHDA), herri edo hirietan diren geriza gune pertsonalizatuak kontutan gabe.

Prozedura aitzinatuetan eta hemen bizitzeko eskubidea duten errefuxiatuentzat, eskubideak eskuratzeko arazo erabakigarria pausatzen da : bizitegia, formakuntza, lana. Ez gara baliabide berezi batzuk sortzeaz ari beharretan diren herritarrekiko errefuxiatuak pribilegiatuko lituzketenak. **Aldiz, beraien jatorria eta historiari lotutako zailtasunak aintzat hartuz, etorkinei gure herria ezagutzeko eta gure ondoan toki bat atzemateko egiazko aukera bat eman behar diegu. Imigrazioa ez da fatalitate bat, denentzako xantza bat baizik !**

Jokoan dena, giza eskubideen eta babes eskubideen errespetua da, Euskal Herriari dagokion postura, Euskal Herria, harrera eta geriza lurraldea, emigrazio eta imigrazio lurraldea.

Elkargo ainitz, ehunka boluntario eta ofizioko langile etorkinak aterpetzeko eta laguntzeko mobilizatu dira. Asko bada egiteko oraindik. **Zuen gainean kontatzen dugu.**

Solidarité Migrants/Etorkinekin kolektiboko eta « Isiltasun Borobila »ren 30 elkarteek eta 300 kideek, CAOko boluntarioek

Izenpetzailak : ASPAL Pays Basque Sud Landes, ATTAC Pays Basque, CCFD-Terre Solidaire Pays Basque, CDDHPB (Comité de défense des droits de l'Homme en Pays basque), CDEP Bayonne, CFDT Pays Basque, CGT Territoriaux Biarritz, CIMADE Groupe Bayonne, CSF, EELV Pays Basque, EH BAI, Ensemble ! Pays Basque, Parti Socialiste, FCPE64, Fraternité Charles de Foucauld-Bayonne, FSU64, Groupes de Recherche Théologique, La LICRA, LAB, LCR Pays Basque, LDH Bayonne, l'Église Protestante Unie de Bayonne Biarritz, Les Bascos, PCF, Planning familial de Bayonne, Secours Catholique Pays de l'Adour, Solidaris, SOS Racisme, Union Syndicale Solidaire.